

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 06/20 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik. Hasierako onarpena. (Espedientea: 2020/65/S200)

Laudio Udalaren Udaltzarak, 2020ko maiatzaren 15 egunean egindako aparteko osoko bilkuran, erabaki zuen onartzea hasiera batean 2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 06/20 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik.

Kontutan izanik Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 15 artikuluan erabakita datorren legez, honako iragarki hau argitaratu da hamabost (15) eguneko epean jendaurrean erakusteko. Epe horren barruan legitimitatez interesatuta daudenek aztertu ahal izango dute eta Udaltzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. 2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 06/20 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik, dagokion dokumentazioarekin batera, Udaletxeko Ogasun eta Ondaren bulegoan, Herriko Plaza, bigarren solairuan, egongo da interesdunen eskura.

a) Erakusketa eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost (15) lanegun iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengotik hasita.

b) Non aurkeztu: Erregistro orokorra.

c) Zein Organori erreklamatu: Udaltzari.

Epe horretan zehar erreklamaziorik ez bada aurkezten, 2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 06/20 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik, behin betiko onartuzat joko dira. Erreklamaziorik balego, Udaltzarak erabakiko ditu hilabeteko epean berriazko erabaki bitartez eta erabakia behin betiko onartuko da.

Laudio, 2020ko maiatzaren 18a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE